

[Eusk/Cast] Concentración en el 79 aniversario de los bombardeos contra Bilbo

PLATAFORMA VASCA PARA LA QUERELLA CONTRA LOS CRÍMENES DEL FRANQUISMO.

:: 03/01/2016

"Los fascistas bombardearon a la población civil de Bilbao hace 79 años, queremos verdad, justicia y reparación"

[Euskara]

Ezin dugu gertatutakoa ahaztu eta biktima eta biktima-eragileak maila berberan jarri

- "Faxistek bilboko biztanleria bombardatu zuten orain dela 79 urte", gogoratu du Frankismoaren Krimenen Aurkako Kereilaren Euskal Plataformak.
- Plataformak azpimarratu du "Egia, justizia, erreparazioa eta ez-errepikapena nahi dugula, eta hori izan behar da instituzioen helburua"

Orain dela 79 urte, Bilbok faxisten lehen bombardaketa jasan zuen, biztanleriaren aurka zuzendutakoa, geroago aplikatuko zen gupidarik gabeko errepresioaren aurrerapena izango zena. Ekitaldi honekin "gertatutakoa azpimarratu nahi dugu, 1936ko kolpe militarrarekin hasi baitziren Frankismoaren krimenak", aipatu du Frankismoaren Krimenen Aurkako Kereilaren Euskal Plataformak. Hau dela eta, "gizartea eta instituzioek gertatutakoa aintzatetsi behar dute" biztanleriaren aurka egindako bombardaketa hau "Frankismoaren gizateriaren aurkako krimenen hasiera izan baitziren, hurrengo hamarkadetan erahilketak eta errepresio orokorrarekin jarraitu baitzuten", Plataformaren iritziz.

Honen aurrean "ezin gara adierazpen politetan geratu, urte berriko proposamen eta asmoak balira bezala" esan du erakunde memorialistak, gertatutakoa oso larria izan baita: espainiar estatuko desagertutakoen kopurua (150.000) bigarrena da mundu mailan, Kanbodia ostean, eta honen erantzule zuzena frankismoa izan da. Gure lurraldoko instituzioek egindako adierazpenek ez dute egia, justizia, erreparazioa eta ez-errepikapena helburutzat, Frankismoaren Krimenen Aurkako Kereilaren Euskal Plataformaren hitzetan "orain arte esandakoa hitz hutsalak baitira". "Nazio Batuen Erakundeko Pablo de Greiff kontalariak harrituta zegoela adierazi zuen", gogorarazi dute erakunde eta elkartea memorialistek, "hainbeste urte pasa ostean Frankismoaren bidegabeketako biktima eta euren senideen alde ez baita ezer egin".

Azken egunotan Eusko Jaurlaritzak, Aranzadi Elkarteaarekin aurkeztutako planean, biktima eta biktima-eragileak maila berean jarri ditu, guda zibileko bi bandoek bortizkeria aplikatu zutela azpimarratuz. Plataformaren hitzetan, "instituzio honen adierazpen hauek erabat gaitzesgarriak dira", erregimen frankistak egindako "Kausa Orokorra" ahazten baitu, zeinean frankismoaren aurka borrokatu zutenek kondenatu baitzituzten: Frankistek euren biktimentzako "justizia" aplikatu zuten. Askatasunaren alde egin zutenak, Errepublika bezalako legezko gobernuarekin borrokatzu eta kolpe militarra egin zuten faxistak alde beran jartzea salatzekoa da, parekatzen baititu. "Errepublika bezalako gobernu legitimoaren zigorrak, gobernu ez-legitimo baten bezalakoak al dira?", galdezu du Plataformak. "Ezin dena da gure lurraldlean lan egiten duten erakunde memorialistak alde batera uztea, gertatu zen gizateriaren aurkako krimenak bi bandoen biolentzian laburbilduz", salatu du

Frankismoaren Krimenen Aurkako Kereilaren Euskal Plataformak.

Hau dela eta, erakunde eta elkarte memorialistek “52/2007 Legea eta Nazio Batuen Erakundeak Memoria Historikoaren alorrean egindako eskakizunak berehala betetzea” exigitu die instituzio, udal, aldundi eta Jaurlaritzari.

Amaitzeko, Plataformak “ekitaldi honekin egia, justizia, reparazio eta ez-errepikapen hitzak ozenki aldarrikatu nahi ditugu, memoria historiko gabeko herria, etorkizunik gabeko herri bat baita”.

[Castellano]

No debemos olvidar lo que ocurrió ni poner al mismo nivel a víctimas y victimarios

- “Los fascistas bombardearon a la población civil de Bilbao hace 79 años”, ha recordado la Plataforma Vasca para la Querella contra los Crímenes del Franquismo.
- La Plataforma ha subrayado que “queremos verdad, justicia, reparación y garantías de no repetición, y ese ha de ser el objetivo de las instituciones”

Hace ahora 79 años Bilbao fue bombardeada por los fascistas, un bombardeo dirigido contra la población civil, preludio de la represión sin compasión que se aplicaría durante el resto de la dictadura. Con este acto “queremos resaltar lo ocurrido, ya que con el golpe militar de 1936 comenzaron los crímenes del Franquismo”, ha dicho la Plataforma Vasca para la Querella contra los Crímenes del Franquismo. Es por ello que “tanto la sociedad como las instituciones deben reconocer que este bombardeo contra la población civil fue uno de los inicios de los crímenes de lesa humanidad del Franquismo”, ya que según la Plataforma, “durante las siguientes décadas siguió con asesinatos y represión generalizada”.

Ante esto “no nos podemos quedar en bonitas declaraciones, como si fueran propuestas e intenciones de año nuevo”, han dicho las organizaciones memorialistas, ya que lo ocurrido fue muy grave: el número de personas desaparecidas en el estado español (150.000) es el segundo a nivel mundial, después de Camboya, y el responsable directo de esto ha sido el Franquismo. Las declaraciones hechas por las instituciones de nuestro territorio no tienen como objetivo la verdad, justicia, reparación, y garantías de no repetición ya que según la Plataforma Vasca para la Querella contra los Crímenes del Franquismo “lo dicho hasta ahora ha sido un brindis al sol”. “El propio relator de la ONU, Pablo de Greiff, afirmaba que, habiendo pasado tantos años, le sorprendía que no se hubiese hecho nada por las víctimas de los crímenes del Franquismo y sus familiares”, recordaban las organizaciones y asociaciones memorialistas.

En los últimos días el Gobierno Vasco ha presentado un plan junto a la Sociedad Aranzadi, poniendo al mismo nivel a víctimas y victimarios, resaltando que los dos bandos aplicaron la violencia. En palabras de la Plataforma “las declaraciones de esta institución son totalmente reprobables”, ya que olvida que el régimen franquista ya aplicó su “Causa General”, haciendo “justicia” con sus víctimas condenando a las que lucharon contra el Franquismo. Poner en la misma balanza a los que lucharon por la libertad, al lado de un gobierno legítimo como el de la República, junto a los fascistas que dieron el golpe militar, es cuando menos denunciable, al igualarlos. “¿Acaso las condenas de un gobierno legítimo como el de la República son iguales al de un gobierno ilegítimo como el franquista?” ha preguntado la Plataforma. “Lo que no se puede hacer es dejar de lado el trabajo hecho por las asociaciones

memorialistas, resumiendo crímenes de lesa humanidad en violencia de dos bandos por igual”, ha denunciado la Plataforma Vasca para la Querella contra los Crímenes del Franquismo.

Es por ello que desde las organizaciones y asociaciones memorialistas exigen a las instituciones, ayuntamientos, diputaciones y Gobierno Vasco” el cumplimiento inmediato de la Ley 52/2007 de Memoria Histórica y de las reclamaciones hechas por la ONU en esta materia”.

Para finalizar, la Plataforma ha recordado que “con este acto queremos reivindicar las palabras verdad, justicia, reparación y garantías de no repetición ya que un pueblo sin memoria histórica es un pueblo sin futuro”.

<https://eh.lahaine.org/concentracion-en-el-79-aniversario>